

**Klausula Administratibo Berezien Plegua / Pliego de Cláusulas Administrativas
Particulares
(EZAUGARRIEN KOADROA / CUADRO DE CARACTERÍSTICAS)**

K O N T R A T U A R E N X E D E A / O B J E T O D E L C O N T R A T O

Nomenklatura
/Nomenclatura

ra

Oiartzungo Udalaren PIKOKARATE izeneko 2.063.1 zenbakia duen herri onurako mendiko 105 eta 113 unadetan egur ustiaketa erabateko mozketara bidez/ Aprovechamiento de madera por corta a hecho en el monte de utilidad pública nº 2.063.1 PIKOKARATE, rodales 105 y 113, perteneciente al Ayuntamiento de Oiartzun.	CPA 2008 02.10.30.
---	-----------------------

PREZIOAK/PRECIOS

<u>LIZITAZIOAREN OINARRIZKO PREZIOA/</u> <u>PRECIO BASE DE LICITACIÓN:</u>	<u>PREZIO INDIZEA / PRECIO ÍNDICE:</u>
Guztira / Total : 161.668,82 € (BEZ barne/ IVA incluido)	Guztira / Total : 202.086,03 €

BURUTZE EPEA / PLAZO DE EJECUCIÓN

Hamabi (12) hilabete gozamen lizentzia lortzen denentik / Doce (12) meses desde la obtención de la licencia de disfrute.
--

PUBLIZITATE GASTUAK/GASTOS DE PUBLICIDAD

Esleipenduaren kontura (300 € gehienez) / A cuenta del adjudicatario (máximo 300€)
--

ALDAERAK EDO HAUTABIDEAK / VARIANTES O ALTERNATIVAS

Ez dira onartzen / No se admiten.

BEHIN-BEHINEKO BERMEA / GARANTÍA PROVISIONAL

Ez da eskatzen / No se pide

BEHIN-BETIKO BERMEA / GARANTÍA DEFINITIVA

Esleipenaren aurrekontuko %5a / 5% del precio de adjudicación.
--

KLAUSULA ADMINISTRATIBOEN BEREZIEN PLEGUA

Oiartzungo Udalaren PIKOKARATE izeneko 2.063.1 zenbakia duen herri onurako mendiko 105 eta 113 unadetan egur ustiaketa erabateko mozketak bidez

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea, aipaturiko egur ustiaketaren kontratua arautuko duten baldintza administratiboak zehaztea da.

Aipatutako aprobetxamendua baldintza teknikoen pleguan zehaztu da.

2.- AURREKONTUA

Baldintza teknikoen pleguko 3. puntuan zehaztu da kontratu honen xederako aurrekontua.

Lizitatzailleek beraien eskaintzetan plegu honen hasierako koadroan ezarritako oinarri prezioa berdindu edo hobetu behar dute.

Kontratuaren prezioa esleipenean ezarritakoa izango da, BEZaren zenbatekoa barne partida bereiztuan.

Bestelako zerga, tasa edo kanonak kontratuaren prezio barnekotzat joko dira, baita kontratuan esleipendunari ezarritako betebeharrak eragindako gastu guztiak ere.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Plegu honetan ezarritako ustiapenaren kontratazioan esleipendunak ez du izango prezioak berrikusteko eskubiderik.

4.- KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

Plegu honetan bertan datorren ezaugarrien koadroan adierazitakoa da kontratua gauzatzeko gehienezko epea, hamabi (12) hilabete gozamen lizentzia lortzen denentik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak emanda.

Kontratista berandutze-egoeran jarri dela jakiteko, administrazioak ez dauka aurrez agindeirik egin beharrik. Berandutzeak eragin ditzakeen zigorak automatikoki ezar ditzake kontratazio organoak. Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen kausak direla eta, azken epea edo epe partzialak betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, administrazioak aukeran izango du, SPKLren 196 artikulua araberak, edo kontratua suntsiaraztea, behin betiko bermea galduz, edo aipatu artikuluko zigorak ezartzea.

Berandutze egoera kontratistari ezin egotz dakizkikeen kausengatik izango balitz SPKLaren 197.2 artikulua izango da aplikagarri.

Kontratua azkentzen da, epea betetzeaz gain, legeak ezarritako suntsiarazpen eta azkentze kausengatik eta, bereziki, betebeharrak bete ez direlako.

Administrazioak kontratuari dagozkion lan eta eginkizunak geldiaraz ditzake enpresa esleipendunak osasun eta segurtasun neurriak bete ez dituelako, jokabide horren ondorioz langileei berehalako arrisku edo larritasunik sortuta. Horrelakoetan Lan eta Gizarte Segurantza Ikuskapenari eta interesatuei berri emango die, 1627/1997 Errege Dekretuaren 14. artikuluen arabera.

Administrazioak kontratuari dagozkion lan eta eginkizunak geldiarazten baditu, enpresa esleipendunak laneko arriskuen arloko arauak bete ez dituelako, eta jokabide horren ondorioz langileen segurtasunerako berehalako arrisku edo larritasunik sortuko balitz, eta geldiarazte horren arrazoia kontratistari badagokio, kontratua betetzeko epea kontatzen jarraituko da, ezarritako gehieneko epeari begira. Horrela sortutako berandutzak kontratua bertan behera uztea ekar dezake, SPKLaren 196, 197 eta 206.d) artikuluen arabera..

5.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA AUZITARAKO JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu hau Kontratu Administratibo Berezitzat sailkatu da; ondorioz, honako arauetara lotuko da:

- Bere arau bereziak eta plegu honetako klausulak.
- Urriaren 20ko 7/2006 Foru Araua, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa, eta Mendiei buruz aplikagarri diren gainerako arauak.
- Urriaren 30ko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren – Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra – arau erregulatzailerak.
- Besterik ezean, Zuzenbide Administratiboan ematen diren gainerako arauak, eta Euskal Autonomi Erkidego edo Gipuzkoako Foru Aldundiko mailan kontratazioari buruz aplikagarri diren beste xedapenak.
- Besterik ezean, Zuzenbide Administratiboan ematen diren arau orokorrak eta, holakorik ez dagoenean, Zuzenbide Pribatuan ematen direnak.

Berebat, Baldintza tekniko eta fakultatibo Berezien eta Orokorren Pleguetan xedatutako baldintza guztiak beteko dira, hurrenez hurren, 1975eko apirilaren 24ko Ebazpena (1975eko abuztuaren 21eko EAO, 200 zk., Erref. 1.75) eta 1975eko maiatzaren 6ko Ebazpena (1975eko abuztuaren 20ko EAO, 199 zk., Erref. 1672).

6.- KONTRATATZEKO MODALITATEA

Kontratazio espedientearen IZAPIDEA ARRUNTA izango da eta lizitazio eta esleipena PROZEDURA IREKI bidez egingo dira.

7.- LIZITATZAILEAK ETA ENPRESA KLASIFIKAZIOA

Edozein enpresa aurkeztu ahal izango da lizitaziora, dela pertsona fisikoa edo juridikoa izan, dela Espainiakoa zein erbestekoa izan; lizitaziora, halaber, berariaz kontratu honetarako eratuko diren

aldi baterako enpresa taldeak ere aurkeztu ahal izango dira. Baina, aurkezten denak, nolana ere, jarduteko gaitasun osoa eduki behar du, SPKLren 49. artikuluan ezarritako kontratatze debekuek ez die eragin behar eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatu behar ditu, dagokion klasifikazioak ordezkatuta legeak eskatzen duenean. Hala balegokio, eskatutako gutxieneko klasifikazioa plegu honen karakteristikak koadroan adierazitakoa izango da.

Enpresek, halaber, kontratuaren objektuaosatzen duen jardura edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

Aldi baterako elkarte eratuz lehiatzen diren enpresaburuek betebeharrak solidarioa izango dute, eta enpresa elkartearen izenean ordezkari edo ahalduz bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askirekin, harik eta kontratua amaitu arte.

Enpresa esleipendun estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jardura-esparrua kontratuaren prestazioarekin bat datorren eta hala egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak izan behar dute. Halaber, kontratua betetzeko elementu pertsonal eta material nahiko dituen antolaketa izan behar dute.

Sozietate talde baten pertsona juridiko menperatzaileen kasuan, kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena edo menperatzailearen klasifikazioa egiaztatze, menperatuetan oinarritu ahal izango da, betiere, kontratua gauzatzeko behar diren bitarteko horiek badituela egiaztatzen badu.

Lizitazioari begira, aldi baterako elkarte batean lehiatu nahi duten enpresek partaideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, eta bakoitzak zenbateko partaidetza duen ere bai. Gainera, kontratuaren esleipena ematen bazaie, aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela ere utzi beharko dute jasota.

Lotutako enpresek proposamen ezberdinak aurkezten badituzte arauz ezarritako ondorioak eragingo dira SPKLko 136. artikuluari dagokionez, balio anormal edo neurrigabeko eskaintzen aplikazioari buruz.

8.- BERMEAK

Lizitatzailerik ez dute behin behineko bermerik aurkeztu behar.

Ekonomikoki eskaintza abantailatsua aurkeztu duen lizitatzailerik kontratazio organoaren esku esleipen zenbatekoaren %5eko bermea jarri behar du, BEZ kanpo, SPKLko 84. artikulua aurrikusten duen moduetako baten. Bermea eskudirutan jartzen bada KUTXAREN 2101 0060 00 0000 89367 k/k-ean egin daiteke.

9.- PROPOSAMENAK: DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Proposamena aurkezteak berekin dakar enpresak baldintzarik gabe onartzea Baldintza Zehatzen Klausulen Plegua eta Baldintza Teknikoen Plegua horien eduki osoa, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe.

Lizitatzailerik bakoitzak proposamen bakar bat baino ezingo du aurkeztu; hala ere, arau horrek ez du esanahi bestelako aldagaiak edo aukerak onartuko ez direnik. Bere kontura proposamena aurkeztu duen lizitatzailerik ere ezingo du aldi bateko enpresa talderen batean aurkeztutako proposamenik

sinatu, ez eta aldi bateko enpresa talde batean baino gehiagotan aurkeztu. Arau horietakoren bat urratzen denean atzera botako dira bere izena agertzen den proposamen guztiak.

Proposamenak aurkeztuko dira **BI KARTAZAL ITXITAN, 1 ZK.DUNA ETA 2 ZK.DUNA**. Kartazal bakoitzaren barruan, orri bereiztu batetan, dokumentuen zerrenda adieraziko da. Kartazaletan ondoren zerrendatuko diren dokumentuak sartuko dira:

1 ZK.DUN KARTAZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1 ZK.dun kartazalean honako dokumentuak sartuko dira:

A) ENPRESAREN JARDUTEKO GAITASUN OSOA EGIAZTATZEN DUTEN DOKUMENTUAK ETA, HALA BALEGOKIO, BERE ORDEZKAPENA.

Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko aurkeztuko dira:

- Lizitatzaila pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen duten arauak.
- Enpresaburua banakakoa balitz, NAN agiria edo bere ordezeko den dokumentua.
- Kontratuaren objektua osatzen duen jardura edo prestazioa gauzatzeko enpresa- edo lanbide-gaikuntza jakina behar denean, gaitasun profesionalaren baldintzak egiaztatzen dituen agiriaren konpulsatutako kopia.
- Lizitatzaila Espainiako enpresaria ez bada baina bai Europako Komunitateko estatu-kidea, edo Europako Eremu Ekonomikoko Akordioa sinatu duenetakoa, Herri Administrazioen Kontratueta Legearen Araudia Orokorraren 9. artikulua arabera egiaztatuko da (1098/2001 Errege Dekretua, Urriaren 12koa).
- Gainerako enpresa atzeritarren jarduteko gaitasuna Herri Administrazioen Kontratueta Legearen Araudia Orokorraren 10. artikulua arabera egiaztatuko da.
- Lizitatzailak ez duenean bere burua aurkezten edo beste norbaiten izanean proposamenak zinatzen direnean NAN agiriaren kopia aurkeztu behar du, edo ordezeko ahalorde askietsia duela aurkeztu. Ahalorde horrek ere Merkataritza Erregistroan behar bezala izena emandakoa behar du izan. Egintza zehatz baterako ahalordea balitz ez dago zertan Erregistroan izana eman beharrik.

B) Lizitatzailak ERANTZUKIZUNPEKO BERARIAZKO AITORPENA aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du ez duela ebazpen irmo bidez zigorrik jaso urratze oso larria dela eta lanerako osasun eta segurtasun arloan, kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Herri Administrazioen Kontratueta Legearen Araudia Orokorraren 13 eta 14. artikuluen arabera, eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, altan dagoela.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitaturik dituela egiaztatzea errekerimendua jasotzen duenetik hamar egun baliadunetan egin behar da. Lizitatzailak berariaz baimendu dezake aitorpenean kontratatzaileak Gipuzkoako Foru Aldundian datu horiek egiaztatzea, esleipena ematen bazaio.

Ekonomi Jardueren gaineko Zergan altan dagoela frogatzeko, lizitatzailleak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

C) KAUDIMENA

1) Ekonomia eta finantza kaudimena. Ekonomia-eta finantza-kaudimena modu hauetakoren bat edo gehiago erabiliz egiazta daiteke:

c.1.a.- Finantza-erakundeen adierazpen egokien bidez, edo, hala balegokio, lanbide-arriskuen kalte-ordainetarako aseguruia daukala egiaztatuz.

c.1.b.- Urteko kontuak Merkataritzako Erregistroan edo dagokion Erregistro ofizialean aurkeztuta. Kontuak Erregistro ofizialetan aurkezteko beharrik ez duten enpresek, egiaztatzeko ordezeko bide bezala, behar bezala legeztaturiko kontabilitate-liburuak aurkeztu ahal dituzte.

c.1.c.- Negozio-bolumen globalaren gaineko adierazpena eta, hala badagokio, kontratuaren objektuaren jarduera-esparruko negozio-bolumenaren gainekoa, gehienez ere azken hiru ekitaldiei buruzkoa, enpresaburuaren jardueren sortze- edo hasiera-egunaren arabera, betiere negozio-bolumen horri buruzko daturik dagoen neurrian.

Enpresaren batek, justifikatutako arrazoiak direla-eta, ezin baditu aurkeztu eskatutako erreferentzia horiek, baimena emango zaio kontratazio-organoak egoki irizten dion beste edozein agiriren bidez bere ekonomia- eta finantza-kaudimena egiazta dezan.

2) Kaudimen teknikoaren zuritzea. Kaudimen teknikoa honako moduan egiaztatuko da:

c.2.a.- Erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztuz: Enpresak urtean batez beste dituen giza baliabideak eta, egoki balitz, giza baliabideek enpleguan duten egonkortasun maila eta, hala nola, azken hiru urtetako zuzendari plantilla langileria, hala egiaztatzen duten dokumentuak erantsita.

c.2.b.- Eta modu hauetako bat edo gehiago erabiliz:

c.2.b.1.- Azken hiru urtetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztuko da, eta, bertan, zerbitzu edo lanon zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua, azalduko dira. Hartzailea sektore publikoko entitatea denean, egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, eta hartzailea pribatua denean, berak emandako ziurtagiri baten bidez, eta ziurtagiririk ez badago, enpresaren aitortpen baten bidez. Agintari eskudunak zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri kontratazio-organoari.

c.2.b.2.- Kontratuan parte hartzen duten langile teknikoak edo unitate teknikoak, enpresan integratuak edo ez, adieraziko dira, bereziki kalitate-kontrolaz arduratzen direnak.

c.2.b.3.- Enpresaren instalazio teknikoak, enpresak kalitatea bermatzeko hartutako neurriak, eta enpresak azterketa eta ikerketa egiteko dauzkan baliabideak adieraziko dira.

c.2.b.4.- Egin beharreko zerbitzuak edo lanak konplexuak direnean, edo, salbuespenezko kasuetan, helburu bereziren baterako direnean, kontratazio-organoak edo haren izenean enpresa kokatuta dagoen estatuko organismo ofizial nahiz homologatu eskudunen batek egindako kontrolaren bidez egiaztatuko da. Betiere, organismo horren adostasuna beharko da. Kontrol hori enpresaren gaitasun teknikoari buruzkoa izango da, eta, beharrezkoa bada, enpresak azterketa eta ikerketa egiteko daukan baliabideei buruzkoa, baita kalitatea kontrolatzeko erabilitako neurriei buruzkoa ere.

c.2.b.5.- Enpresen eta enpresako zuzendaritza-taldearen titulu akademikoak eta lanbide-tituluak aurkeztuko dira; bereziki, kontratua gauzatzeko erantzukizuna daukatenenak.

c.2.b.6.- Egoki ikusten denean, kontratua gauzatzean enpresak ingurumen-kudeaketarako aplikatu ahalko dituen neurriak adieraziko dira.

c.2.b.7.- Enpresak lanak edo zerbitzuak egiteko edukiko dituen makina, material eta teknikari-taldea azaltzeko adierazpena egingo da. Horrekin batera, egiaztatzeko behar diren agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

D) Aldi baterako elkarteak aurkezten duenean proposamena enpresa bakoitzak gaitasun eta kaudimena egiaztatu behar du. Enpresen legezko ordezkari bakoitzak zinatutako dokumentua aurkeztu behar dute. Partaideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, kontratuaren esleipena ematekotan aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromesua hartzen dutela, bakoitzak zenbateko partaidetza duen eta enpresa elkartearen izenean ordezkari edo ahaldun bakarra zein den administrazioaren aurrean jarduteko kontratua indarrean dagoen bitartean.

E) Lotutako enpresen kasuetan ez dagoela jasotzen duen aitortpena, Merkataritzako Kodearen 42.1 artikulua arabera, eta, hala balegokio, enpresa taldea osatzen duten enpresen zarrenda.

F) Atzerriko enpresek aitortpen bat aurkeztuko dute, Espainiako edozein arlotako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe egongo direla adieraziz, kontratua gauzatzekoan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gertakizun guztietarako. Aitortpen horretan, hala beharko balitz, aitortuko dute beraiei beren jatorriagatik legokiekeen jurisdikzioari uko egiten dietela.

G) Europar komunitateko partaide ez diren atzerriko enpresek Espainian ordezkari-tza zabalik dutela eta Merkataritza Erregistroan izena eman dutela egiaztatu behar dute, ahalordedun edo ordezkaria izendatuz.

H) POSTA ELEKTRONIKO HELBIDEA.

I) %2ko ezintasuna baino gehiago duten langileak dituela ziurtatzen duen **BERARIAZKO AGIRIA.**

J) Kartazal honetan dauden DOKUMENTU GUZTIEN ZERRENDIA.

Enpresek aurkezten duten dokumentazioa euskeraz edo gaztelaniaz itzulita egongo da Herri Administrazioen Kontratu-tako Legearen Araudia Orokorren 23. artikulua arabera.

Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emandako lizitatzailerak erregistroko arduradunak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, aurreko a) puntuan eskatzen den

dokumentazioaren ordeztu. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzeko ziurtagiria martxoaren 13ko 24/2001 Foru Dekretuak arautzen duenarekin bat lortu dutenek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontuhartzailatza eta Auditoretzako Zerbitzuak emandako ziurtagiri konpultsatua aurkeztu ahal izango dute ere aipatutako dokumentazioaren ordeztu.

Aipatutako dokumentazio guztia orijinal edo kopia konpultsatu bidez aurkeztuko da, notarioak edo Administrazio eskudunak eginda.

2 ZK.DUN KARTAZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa plegu honetako I. ERANSKINEAN adierazten denaren arabera aurkeztuko da.

Proposamena enpresa talde batek aurkeztzen duenean guztiek zinatua behar dute, zuzenean edo ordezkari bidez.

Dokumentu honetan jasotzen den zenbatekoan lanen kontratazio eta burutzeak eragindako edo eragingo dituen gastu guztiak barne daudela ulertzen da, eta zehazki:

- Aldizkarietan iragarkiarene publikazio gastuak, indarrean dauden xedapen eta kontratuaren formalizazioaren arabera. Gehiengo zenbatekoa pleguan jasotako baldintza koadroan jasotakoa da.
- Esleipendunak egin beharreko gastuak kontratatutako prestazioa betetzeko, gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, tasak, fidantzak, garraio eta joan-etorriak, pertsonalaren ordainsari eta dietak; baita ere baimenak, lizentziak, dokumentuak edo erakunde eta partikularrek edozein informazio bidali eta jasotzeko behar direnak, plegu honetan jasotako gainerakoak eta, orokorrean, kontratuaren helburua betetzeko behar diren lan edo txostenak eskatzen dituztenak.
- Zerga mota guztiak, BEZa eta kontratua indarrean dagoen bitartean eragin edo alda daitezkenak barne. Bildutako BEZa banakako partida moduan adieraziko da.

Aipatutako kontzeptu guztietatik bat ere ez ezin izango dira banakako partida bezala bildu.

10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espediente, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere aztertu ahal izango da Oihartzungo Udalean, Done Eztebe Plaza 1, 08:00 eta 14:30 artean egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, **20 egun naturaleko epean**, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epeko azken eguna larunbata edo jaiegun balitz, proposamenak aurkezteko epea hurrengo egun baliodunera luzatzen dela ulertuko da.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatzailearen profilaan argitaratu beharko da, eta honako webgunean ere eskuratu ahal izango da: www.oihartzun.org.

Baldintza-agiriak eta horien dokumentazio osagarria eskatzen duten eskaintzaileei bidaliko zaizkie, eskaera hori jaso eta sei eguneko epean, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

Eskaintzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria emango da proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 142.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztalaria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Proposamena aurkezteak, alde batetik, lizitatzailerak plegu honetako baldintzak eta gainontzeko kontratu-agiriak onartu dituela esan nahi du; eta bestetik erantzukizunpeko adierazpena egiten du kontratua egiteko eskatzen diren betekizun guztiak betetzen dituela esanez.

Kartazalak itxita eta sinatuta aurkeztuko dira, eta horien aurrealdean enpresa lizitatzaileraren edo lizitatzaileraren izena, helbidea, telefonoa, posta helbidea, faxa eta honako idazkia: **Oiartzungo Udaren PIKOKARATE izeneko 2.063.1 zenbakia duen herri onurako mendiko 105 eta 113 unadetan egur ustiaketa erabateko mozketak bidez KONTRATATZEA.**

Horrez gain, kartazal bakoitzean honako goiburuak idatziko dira:

1. KARTAZALA: GAITASUN ETA KAUDIMENA

2. KARTAZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK.

11.- ALDAGAIAK

Ez dira onartuko.

12.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA SAILKATZEA

Kontratazio-Mahaia Oiartzungo Udaren Kontratazio-Mahai iraunkorra izango da. Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko, Mahaiak hala eskatzen badio.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian 1 zenbakidun kartazala (GAITASUNA ETA KAUDIMENA) sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango zaizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dituzte, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatuko dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 9. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Aurkeztutako proposamenak irekitzeko Kontratazio Mahaiak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 83. artikuluan eta hurrengoetan eta 30/2007 Legea partzialki garatzen duen 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Aurrekoa egin eta gero, proposamenen 2 zenbakidun kartazala (PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK) irekiko du Mahaiak, kontratatzailearen profilean argitaratuko den leku, egun eta orduan.

Hurrengo egunetan Kontratazio-Mahaiak proposamenak balioetsi, ebaluatu eta sailkatzeari ekingo dio, eta klasifikazio-proposamena aurkeztu kontratazio-organoari. Mahaiak, klasifikazio-proposamena adierazi baino lehen, kontratu objektuarekin zerikusia duten txosten teknikoak eska ditzake, behar izanez gero.

13.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Administrazioak ekonomikoki proposamenik onarugarriena aurkeztu duenari esleituko dio kontratua, lizitazioa hutsik geratzen ez bada (pleguetan agertzen diren irizpideen arabera proposamen onartezina dagoenean).

Kontratua esleitzeko irizpide bakarra preziorik onuragarrienarena izango da.

Proposamen bat baino gehiagok puntuazio berdina lortzen badute kaudimen teknika egiaztatzerakoan bere plantillan gaigabezia duten langile iraunkor portzentai haundiagoa duen enpresaren alde joko da, betiere portzentai hori %2a baino gehiago bada.

14.-. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Esleipena hamabost eguneko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

Kontratazio-organoak hoberenetik behera klasifikatuko ditu aurkeztutako proposamenak. Klasifikazioa pleguetan zehaztutako esleipen- irizpideen arabera egingo du.

Horiek horrela, errekerimendua egingo zaio proposamenik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerari 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hurrengoak egin ditzan:

- a) Egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrek eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu.
- b) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan altan dagoelaren froga, alta-agiria aurkeztuz, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- c) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- d) Behin betiko bermea jarri eta egiaztatu.
- e) 1.323,31 Euroko tasak ordaindu KUTXAko 000316373-0 k/k-an Gipuzkoako Foru Aldundiari, "Mendi diru-sarrerak" izena emanez, eta ordainketa ziurtagiria aurkeztu.
- f) Jendaurreko zabalkunde ofizialean egiteko gastuak ordaindu.
- g) Aldi baterako elkartearen eratzeko eskriturak hala dagokionean.

Esleipena bost egun balioduneko epean egin beharko da, goian aipatutako a), b), c), d), e), f) eta g) puntuetan adierazitakoak bete eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Aitzitik, beteko ez balitu, bere eskaintza erretiratzen duela ulertuko da, eta beraz, aipatu dokumentazioa eskatuko zaio klasifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoen lizitatzailerari.

Esleipena kontratazio-organoak erabakiko du ebazpen arrazoitu bidez. Ebazpena hautagaiei edo lizitatzailerari jakinaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Formalizazioaren bitartez berriz kontratuak indar juridikoa hartuko du. Esleipendunari jakinaraziko zaio eta jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean formalizazioa egin behar da.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

Kontratuaren formalizazioa egiteko unean esleipendunak Klausula Administratibo Berezien Plegua, Baldintza Teknikoen Plegua eta kontratua osatzen duten beste dokumentuak ere sinatu behar ditu.

15.- ORDAINTZEKO BALDINTZAK

1.- Esleipendunak esleipenaren balio osoa ordaintzeko bi era hauetako bat aukera dezake:

a) Kontratua sinatu baino lehen prezio osoa bermatzen duten banku abalen bidez, Oiertzungo Udalak horien kanzelazioa baimendu arte. Abal horiek esleipen zenbateko osoagaitik era daitezke, edo hurrengo epemugen ordainketa bermatzen duten abal bat edo bat baino gehiago bidez:

- Esleipen prezioaren %50, kontratu datatik eta ondorengo 6 hilabeteko epe barruan.

- Gainontzeko %50, aprobetxamenduaren likidazioa egiten duenean, eta edozein modutan kontratu datatik hurrengo 12 hilabetetan baino lehen.

Aurretik abal bidez bermaturiko ordainketak KUTXAREN 2101 0060 00 0000 89367 k/k-ean egingo dira.

Abalak Oiartzungo Udaletzeko Idazkaritzan aurkeztuko dira, Don Eztebe Plaza 1 zenbakian.

b) Zenbatekoaren ordainketa bere osotasunean eginez esleipena jakinarazi eta hurrengo 20 egunetan, KUTXAREN 2101 0060 00 0000 89367 k/k-ean.

2.- Ordainketak egin baino lehen dagokion faktura bidaliko da.

16.- KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da hitzartutako epean.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek. Kontratua burutu eta interpretatzeko kontratazio organoak kontratistari aginduak eman ahal dizkio.

Esleipendunak lanen kalitate teknikoaren eta Administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioen erantzunkizuna du. Kontratistak kontratua burutzerakoan izan daitzekeen kalteak eragindako erantzunkizunari aurre egiteko aseguru kontratua izan beharko du, kontratuaren burutze eta berme epetarako (luzapenak barne). Aseguru kontratua baduela egiaztatu beharko du edozein momentutan Administrazioak hala eskatuta. Egiaztatu ezean kontratua amaitutzat jotzeko arrazoia izango da.

Esleipendunari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Esleipendunak plegu teknikoek langileria, materiala, lanabesak eta ibilgailuekiko ezartzen dituzten obligazio eta baldintza guztiak bete beharko ditu. Lanak ekipo eta baliabide material egokiekin burutu beharko ditu.

Lanak burutzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimenak, eta horiek eragindako gastuak, kontratistaren esku izango dira.

Kontratistak SPK Lan isiltasuna gordetzeari buruzko xedapenak errespetatu beharko ditu.

17.- ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu, eta horiek betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Zehazki, Laneko Arriskuen Prebentziori buruzko azaroaren 8ko 31/1995 legean xedaturiko betekizun guztiak bete beharko ditu, eta maiatzaren 30.eko 773/1997 Errege Dekretuan eta uztailaren 18.eko 1215/1997 Errege Dekretuan ezarritakoak ere. Kontratistaren erantzunkizuna izango da lan instripuen inguruko dena.

18.- KONTRATUA EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO PENALIZAZIOAK

Lanak hasi, burutu eta bukatu plegu honen ezaugarri koadroan ezarritako epetan egin behar da.

Administrazioak berariaz eta behar bezala motibatuz beste ezer adierazten ez badu, lanak Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak emandako gozamen lizentzia ematen denean hasiko dira.

a).- Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea.

Kontratistak, berari egotzitako arrazoiengatik, zerbitzu kontratua gauzatzeko epea, bai epe osoa bai epe partzialak, beteko ez balitu, Osoko Udalbatzak kontratua etetea erabaki dezake, kontratistak jarritako bermea galduko duelarik, edo bestela, eguneko zehapenak jarriko dizkio enpresariari, kontratu prezioaren 1.000€ bakoitzeko 0,20ko proportzioan.

Berandutzearen ondorioz jarritako zigorrak kontratuaren prezioaren %5eko multiplo baten mailara iristen diren bakoitzean, Udalak hauta dezake hori eten edo horiekin jarraitzea zigor berriak jarritz.

b).- Zerbitzuen burutze partziala ez betetzea.

Kontratistak, berari egotzitako arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako zerbitzuen burutze partziala bete ez balu, Administrazioak kontratua etetea erabaki dezake, edo enpresariari kontratuaren prezioaren 1.000€ bakoitzeko 0,20ko proportzioko eguneko zehapena jarritzea.

19.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipendunaren ardura da zerbitzu-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

20.- KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua burututakoan, interes publikoko arrazoiengatik eta ezusteko kausei erantzuteko baino ezin izango du aldaketarik sartu kontratazio-organoak kontratuan, eta espedientean behar bezala justifikatu beharko du.

Kontratuaren objetuan aldaketa bat sartzea beharrezkoa denean proposamena idatziko da. Proposamenaren barnean hura justifikatzen deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuak egongo dira. Administrazioak aldaketa onartzea kontratista entzunda egingo da.

Aldaketa dela eta lanen zatiren batekin aurrera egitea ezinezkoa bada kontratua aldi baterako eten egingo da, osorik edo zati batetan.

Kontratu aldaketak SPKLaren 140.aren arabera formalizatuko dira.

21.- ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Zerbitzua eman ondoren zerbitzuaren harrera egingo da ekintza formal eta positibo bidez.

Gainera, bi hilabeteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan egiten diren lan edo zerbitzuetan akatsak agertzen badira, esleipenduna izango da erantzulea.

Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da, bermea bueltatuz.

22.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak SPKLaren 206 eta 284 artikuluetan aurreikusitakoak dira.

Administrazioak kontratua amaitutzat jo dezake plegu honetan edo kontratu dokumentutan derrigorrezkotzat ezarritako betebeharrak kontratistak ez betetzeagaitik.

Bereziki kontratua amaitutzat jotzeko arrazoiak dira, nahiz eta zerrenda itxia ez izan:

- a) Kontratistak kontratua aldatzea suposatzen duten jokabideak burutzea Administrazioak aldeztu aurretik baimena eman gabe.
- b) Isiltasuna mantentzeko betebeharra ez betetzea.
- c) Kontratua burutzeko eskaintako baliabideak nabarmen falta direnean.
- d) Eskaintzan adierazitako pertsona fisiko edo juridikoak ez direnak erabiltzea lanak burutzeko, Administrazioak aldeztu aurretik berariazko baimena eman gabe.
- e) Enpresa binkulatuen kasuan hura osatzen dutenen zerrenda faltsua edo osogabea adieraztea.
- f) SPKLaren 210 eta 211 artikuluetako baldintzak urratzea, subkontratazio araubideari buruz.
- g) Kontratua burutzeko izendatutako pertsonala aldatzea Administrazioak baimena eman gabe.

23.- KONTRAESAN KASUAK

Xedapen ekonomiko-administratiboen inguruan, baldintza teknikoaren plegu eta klausula administratibo berezien plegua osatze duten dokumentuen artean kontraesanik balego, plegu honetan ezarritako klausulak izango dira nagusi.

24.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren

ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

25.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

26.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Bide administratiboari amaiera ematen dioten erabakien aurka, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioa arautzen duen Legean ezarritakoarekin bat etorritz, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu ahal izango da. Hala ere, interesatuek Administrazio Prozedura Erkidearen eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluetan aurreikusitako berraztertze hautazko helegitea aurkeztu ahal izango dute.

Kontratutik ondorioztatzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzi-bidearen jurisdikziokotzat iritziko dira, baina, nolanahi ere, bi aldeek erabaki dezakete bere auziak tartekaritzara jartzea inarrean dagoen legedian ezarritakoari jarraiki.

Oiartzunen, 2010.eko abenduaren 1ean

I. ERANSKINA

DIRU-PROPOSAMENA

..... jna./ and., N.A.N.....
zenbakiduna, helbidea.....,nire izenean /
.....-ren izenean, helbidea

ADIERAZTEN DUT

1) “Oiartzungo Udalaren PIKOKARATE izeneko 2.063.1 zenbakia duen herri onurako mendiko 105 eta 113 unadetan egur ustiaketa erabateko mozketak bidez” prozedura ireki bidez KONTRATATZEKO proposamena aurkeztzen dudala.

2) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €, gehi..... € Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ). %..... da BEZ portzentaia. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere.

3) Arau teknikoen agiria, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

4) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)koaren(a)

Sinadura

